Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

**Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza**
**Dirección de Finanzas y Presupuestos**
Kontabilitate Zerbitzua
Servicio de Contabilidad

# K O N T R A T U A K — C O N T R A T O S

## 1.- KONTRATUEN ERREGISTROA

Kontratuen erregistroan jasotako kontratazio-bolumena %23,54 murriztu da, 2008ko 64.390,17 mila eurotik 2009eko 49.230,91 mila eurora pasatuz. Erregistratutako kontratuen kopurua 192tik 174ra pasatu da, %9,37eko gehikuntzarekin.

## 2.- KONTRATU MOTA

Kontratu-mota bakoitzaren zenbatekoaren garrantziak, kontratazio osoarenarekin konparatuz, ondorengo eboluzio hau izan du:

## 1.- REGISTRO DE CONTRATOS

El volumen de contratación recogido en el registro de contratos, se ha minorado en un 23,54% , pasando de 64.390,17 miles de euros en 2008 a 49.230,91 miles de euros en 2009. En cuanto al número de contratos registrados se ha pasado de 192 a 174 representando una disminución del 9,37% .

## 2.- TIPO DE CONTRATO

El peso específico del importe de cada uno de los tipos de contrato, frente al total de la contratación, presenta la siguiente evolución:

(importe en euros)

| URTEA/AÑO | OBRAK / OBRA | HORNIDURA / SUMINISTRO | LAGUNTZA ETA AHOLKULARITZA / ASISTENCIA Y CONSULT. | GUZTIRA / TOTAL |
|---|---|---|---|---|
| 2008 | 32.746.001,61<br>50,86% | 4.653.761,86<br>7,23% | 26.990.410,44<br>41,92% | 64.390.173,91<br>100,00% |
| 2009 | 36.952.807,31<br>75,06% | 8.018.807,45<br>16,29% | 4.259.291,41<br>8,65% | 49.230.906,17<br>100,00% |
| ALDAKETA / VARIACIÓN | 12,85% | 72,31% | -84,22% | -23,54% |

**KONTRATU-MOTAREN ETA ZENBATEKOAREN ARABERAKO ALDAKETA 2008TIK 2009ERA**

**VARIACIÓN POR TIPO DE CONTRATO E IMPORTE 2009 SOBRE 2008**



Obren kontratazioak jasandako igoera %12,85ekoa da. Igoera hori, funtsean, Herrilan eta Garraio Sailean gertatu da, 21.879,74 mila eurotik 23.773,11 mila eurora pasatu baita, “A-3314 errepidearen, 19,300 kilometrotik 32,300 kilometrora, trazatua hobetzeko proiektuaren” kontratuaren ondorioz nagusiki. Halaber, Nekazaritza Sailean ere igoera eman da, 888,65 mila eurotik 1.845,13 mila eurora pasatu baita, “2008ko euriteek kaltetutako landa azpiegiturak konpontzeko” kontratuaren ondorioz batik bat.

El incremento experimentado para contratación de obras, el 12,85% , fundamentalmente está producido por el Departamento de Obras Públicas y Transportes, que pasa de 21.879,74 a 23.773,11 miles de euros como consecuencia principalmente del contrato de "Proyecto mejora trazado plataforma A-3314, PK 19,300 a PK 32,300" ; y por el Departamento de Agricultura que pasa de 888,65 a 1.845,13 miles de euros, como consecuencia principalmente del contrato de "Reparación infraestructuras rurales por fuertes lluvias 2008.

Horniketa kontratuei dagokienez, %72,31 igo dira, 8.018,81 mila euroraino hain zuzen ere. Igoera hori batez ere Foru Administrazioaren Sailean eman da, izan ere, 3.535,87 mila eurotik 7.559,43 mila eurora pasatu da, AFAren plataforma teknologikoaren datu nagusiak administratzeko (DNA) eta finantza errentamendurako lizentzien hornidura kontratuen ondorioz

En cuanto a los contratos de Suministros, se han visto incrementados en un 72,31%, alcanzando la cifra de 8.018,81 miles de euros. Dicho incremento ha sido producido fundamentalmente por el Departamento de Administración Foral, que pasa de 3.535,87 a 7.559,43 miles de euros como consecuencia principalmente de los contratos de Suministro de Licencias sistema Administración de datos maestros (MDM) y Arrendamiento Financiero de la plataforma tecnológica de DFA.

Laguntza tekniko eta aholkularitzako kontratuek aldiz nabarmen egin dute behera, %84,227 alegia. Hortaz, 26.990,41 mila eurotik 4.259,30 mila euro izatera pasatu dira. Jaitsiera hori gehien bat Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailean eman da, 3.318,30 mila eurotik 177,13 mila eurora pasatu baita, 2008an “Arabako Lurralde Historikoko ondasun higiezinen katastro” kontratuak esleitu zituelako. Bestalde, jaitsiera Foru Administrazioaren Sailean ere eman da, 18.613,93 mila eurotik 468,70 mila eurora pasatuz, 2008an “Zerga kudeaketa eraldatzeko proiektua” esleitzeagatik.

En cuanto a los contratos de Asistencia Técnica y Consultoría, es notorio el decremento producido en un 84,227% , pasando de 26.990,41 a 4.259,30 miles de euros. Dicho decremento ha sido producido fundamentalmente por el Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos que pasa de 3.318,30 a 177,13 miles de euros como consecuencia de la adjudicación en 2008 de los contratos de "Catastro de Bienes Inmuebles en el THA"; y del Departamento de Administración Foral que pasa de 18.613,93 a 468,70 miles de euros, como consecuencia de la adjudicación en 2008 del contrato de "Proyecto de transformación de la Gestión Tributaria".

**3.- ESLEITZEKO MODUA**

Esleitzeko modu bakoitzaren garrantziak, kontratazioaren guztizkoarekin parekatuz gero, ondoren azaltzen den eboluzioa izan du:

**3.- FORMA DE ADJUDICACIÓN**

El peso específico de cada una de las formas de adjudicación frente al total de la contratación, presenta la siguiente evolución:

(importe en euros)

| URTEA/AÑO | ENKANTEA / SUBASTA | LEHIAKETA / CONCURSO | ZUZ. ESLEIPENA-NEGOZ. /ADJ.DIRECTA-NEGOCIADO | GUZTIRA / TOTAL |
|---|---|---|---|---|
| 2008 | 888.649,44<br>1,38% | 35.082.632,49<br>54,48% | 28.418.891,98<br>44,14% | 64.390.173,91<br>100,00% |
| 2009 | 0,00<br>0,00% | 33.531.530,60<br>68,11% | 15.699.375,57<br>31,89% | 49.230.906,17<br>100,00% |
| ALDAKETA / VARIACIÓN | -100,00% | -4,42% | -44,76% | -23,54% |

Azpimarkatu behar da lehiaketa bideak duen garrantzi handia, kontratazio zenbateko osoaren % 68,11 jotzen baitu.

Resaltar el peso específico de la forma de concurso que supone un 68,11% de volumen total de contratación,.

Orobat azpimarkatzekoa da Zuzeneko Esleipena /Negoziatuaren pisu erlatiboa %31,89 dela.

Igualmente es de destacar, que la forma de Adjudicación Directa /Negociado, supone un 31,89% de peso específico.

**ESLEITZEKO MODUAREN ETA ZENBATEKOAREN ARABERAKO ALDAKETA 2008TIK 2009ERA**

**VARIACIÓN POR FORMA DE ADJUDICACIÓN E IMPORTE 2009 SOBRE 2008**




Ikusten da 2009an egindako kontratuen kopurua murriztu egin dela, 192 kontratutik 174ra pasatuz (%9,38)

Se observa que el número de contratos suscritos a lo largo de 2009, se ha disminuido, pasando de 192 a 174, (un 9,38% ) .

Kontratu-kopuruari begiratuz gero, ondorengo datuak izango genituzke:

Si atendemos al número de contratos, su detalle es el siguiente:

| URTEA/AÑO | ENKANTEA / SUBASTA | LEHIAKETA / CONCURSO | ZUZ. ESLEIPENA-NEGOZ. /ADJ.DIRECTA-NEGOCIADO | GUZTIRA / TOTAL |
|---|---|---|---|---|
| 2008 | 2<br>1,04% | 59<br>30,73% | 131<br>68,23% | 192<br>100,00% |
| 2009 | 0<br>0,00% | 33<br>18,97% | 141<br>81,03% | 174<br>100,00% |
| ALDAKETA / VARIACIÓN | -100,00% | -44,07% | 7,63% | -9,38% |

**KONTRATU-KOPURUAREN ALDAKETA 2008TIK 2009ERA ESLEITZEKO MODUAREN ARABERA**

**VARIACIÓN DEL NUMERO DE CONTRATOS POR FORMA DE ADJUDICACIÓN 2009 SOBRE 2008**




## 4.- ESLEIPENDUNAK

Esleitutako guztiaren % 80, 19 esleipenduni dagokie. Kopuru hori esleipendun kopuru osoaren % 13,38 da.

Esleitutako guztiaren % 15, 39 esleipenduni dagokie. Kopuru hori esleipendun kopuru osoaren % 27,46 da.

Esleitutako guztiaren % 5, 84 esleipenduni dagokie. Kopuru hori esleipendun kopuru osoaren % 59,15 da.

Azterketa honetan, esleitutako kopuru guztiaren

## 4.- ADJUDICATARIOS

El 80% del total Adjudicado, se alcanza con 19 adjudicatarios, que representa un 13,38% del número total de Adjudicatarios.

El 15% del total Adjudicado, se alcanza con 39 adjudicatarios, que representa un 27,46% del número total de adjudicatarios.

El 5% del total Adjudicado, se alcanza con 84 adjudicatarios, que representa un 59,15% del número total de adjudicatarios.

barruan, kontuan hartu dira esleipenean izandako aldaketak.

En este análisis, dentro del importe total adjudicado, se ha tenido en cuenta las modificaciones en la adjudicación.

**5.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAK**

Esleitutako guztiaren % 80, 36 kontraturi dagokie. Kopuru hori kontratu kopuru osoaren % 20,69 da.

Esleitutako guztiaren % 15, 58 kontraturi dagokie. Kopuru hori kontratu kopuru osoaren % 33,33 da.

Esleitutako guztiaren % 5, 80 kontraturi dagokie. Kopuru hori kontratu kopuru osoaren % 45,98 da.

**5.- EXPEDIENTES DE CONTRATACIÓN**

El 80% del total Adjudicado, se alcanza con 36 contratos, que representa un 20,69% del número total de contratos.

El 15% del total Adjudicado, se alcanza con 58 contratos, que representa un 33,33% del número total de contratos.

El 5% del total Adjudicado, se alcanza con 80 contratos, que representa un 45,98% del número total de contratos.

**6.- APLIKAZIO ESPARRUA**

Martxoaren 13ko Diputatu Kontseiluaren Foru Dekretuaren 40/95 arabera (abenduaren 26ko 113/01 Foru Dekretuaren bidez aldatuta), kontratu-erregistroan ondorengo datu hauek jasoko dira:

**1.** Foru Aldundiak edo bere Erakunde Autonomoek formalizatzen dituzten kontratu guztiak, munta txikikoak izan ezik.
**2.** Kontratuen aldaketak eta kontratu horien luzapenak.
**3.** Kontratu horien betetzea edo, bestela, haien deuseztatzea.

**6.- ÁMBITO DE APLICACIÓN**

Según Decreto Foral del Consejo de Diputados 40/95 de fecha 13 de marzo modificado por el Decreto Foral 113/01 de fecha 26 de diciembre en el registro de contratos se anotarán:

**1.** Todos los contratos que formalice la Diputación Foral o sus Organismos Autónomos con exclusión de los menores.
**2.** Las modificaciones contractuales y prórrogas de tales contratos.
**3.** El cumplimiento o, en su caso la resolución de tales contratos.

**GLOSATEGIA**

Sektore Publikoaren kontratuei buruzko urriaren 30ko 30/2007 Legearen arabera, Administrazioak egindako kontratuak administratiboak edo pribatuak izan daitezke..

19. artikulua. Administrazio-kontratuak

1. Administrazio-izaera izango dute kontratu hauek, administrazio publikoren batek egiten baldin baditu:

**G L O S A R I O**

De acuerdo con la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, Los contratos del sector público pueden tener carácter administrativo o carácter privado

Artículo 19.: Contratos administrativos.

1. Tendrán carácter administrativo los contratos siguientes, siempre que se celebren por una Administración Pública:

a) Obra-kontratuek, obra publikoen emakida-kontratuek, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuek, hornidura-kontratuek eta zerbitzu-kontratuek, bai eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetza-kontratuek ere. Hala ere, II. eranskineko 6. kategorian sartzen diren zerbitzu-kontratuak, eta xedetzat sormen eta interpretazio artistiko eta literarioa eta eranskin bereko 26. kategoriako ikuskizunak dituztenak ez dira administrazio-kontratu izango.

b) Lehen aipatutakoez besteko xedeak dituzten kontratuak, baina administrazio-izaera berezia dutenak administrazio kontratatzailearen eragiketa edo trafiko berariazkoari lotuta egoteagatik edo zuzenean edo zeharka haren eskumen berariazkoari dagokion xede publiko bati erantzuteagatik; betiere, ez bazaie berariaz kontratu pribatuaren izaera eman 20.1 artikuluaren bigarren paragrafoaren arabera edo lege batek halakotzat jorik.

2. Administrazio-kontratuen prestaketa, esleipena, ondorioak eta azkentzea lege honen eta bera garatzen duten xedapenen pean izango dira; horien osagarri, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, eta, horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak. Hala ere, aurreko paragrafoko b) idatz-zatian aipatzen diren administrazio-kontratu bereziei beren arau espezifikoak aplikatuko zaizkie lehenbizi.

**20. artikulua. Kontratu pribatuak**

1. Kontratu pribatutzat joko dira administrazio publikoaren izaera ez duten sektore publikoko ente, organismo eta entitateek egindako kontratuak.
Kontratu pribatuak izango dira, baita ere, administrazio publiko batek egiten dituenak, honako objektu hauek dituztenak: II. eranskineko 6. kategorian sartzen diren zerbitzuak, sormen eta interpretazio literario eta artistikoa edo 26. kategorian sartzen diren ikuskizunak, aldizkari eta beste argitarapen eta datu-base batzuen harpidetza, bai eta aurreko artikuluaren 1. paragrafoan jasotakoak ez bezalako kontratuak .

2. Kontratu pribatuen prestaketa eta esleipena, berariazko legerik ezean, lege honen eta lege hau garatzeko xedapenen pean egongo dira, eta, horien osagarri, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, edo, hala balegokio, zuzenbide pribatuko arauak, subjektu edo entitate kontratatzailearen arabera zer dagokion.

a) Los contratos de obra, concesión de obra pública, gestión de servicios públicos, suministro, y servicios, así como los contratos de colaboración entre el sector público y el sector privado. No obstante, los contratos de servicios comprendidos en la categoría 6 del Anexo II y los que tengan por objeto la creación e interpretación artística y literaria y los de espectáculos comprendidos en la categoría 26 del mismo Anexo no tendrán carácter administrativo.

b) Los contratos de objeto distinto a los anteriormente expresados, pero que tengan naturaleza administrativa especial por estar vinculados al giro o tráfico específico de la Administración contratante o por satisfacer de forma directa o inmediata una finalidad pública de la específica competencia de aquélla, siempre que no tengan expresamente atribuido el carácter de contratos privados conforme al párrafo segundo del artículo 20.1, o por declararlo así una Ley.

2. Los contratos administrativos se regirán, en cuanto a su preparación, adjudicación, efectos y extinción, por esta Ley y sus disposiciones de desarrollo; supletoriamente se aplicarán las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado. No obstante, a los contratos administrativos especiales a que se refiere la letra b) del apartado anterior les serán de aplicación, en primer término, sus normas específicas.

**Artículo 20.** Contratos privados.

1. Tendrán la consideración de contratos privados los celebrados por los entes, organismos y entidades del sector público que no reúnan la condición de Administraciones Públicas.
Igualmente, son contratos privados los celebrados por una Administración Pública que tengan por objeto servicios comprendidos en la categoría 6 del Anexo II, la creación e interpretación artística y literaria o espectáculos comprendidos en la categoría 26 del mismo Anexo, y la suscripción a revistas, publicaciones periódicas y bases de datos, así como cualesquiera otros contratos distintos de los contemplados en el apartado 1 del artículo anterior.

2. Los contratos privados se regirán, en cuanto a su preparación y adjudicación, en defecto de normas específicas, por la presente Ley y sus disposiciones de desarrollo, aplicándose supletoriamente las restantes normas de derecho administrativo o, en su caso, las normas de derecho privado, según corresponda por razón del sujeto o entidad contratante. En cuanto a sus

Ondorioei eta azkentzeari dagokionez, kontratu hauek zuzenbide pribatuaren pean egongo dira..

efectos y extinción, estos contratos se regirán por el derecho privado

**1.- OBRA KONTRATUAK**

1. Obra kontratuak dira obraren bat egitea, I. eranskinean zerrendaturiko lanetako bat egitea edo sektore publikoko entitate kontratatzaileak zehaztutako beharrizanak betetzeko edozein bitarteko erabiliz obra bat gauzatzea helburutzat duten kontratuak. Prestazio horietaz gain, kontratuak, hala egokituz gero, dagokion proiektua idaztea ere jaso ahal izango du.

2. Obratzat joko da ondasun higiezin bat xede duten eta eginkizun ekonomiko edo tekniko bat betetzeko egiten diren eraikuntzako edo ingeniaritza zibileko lan batzuen emaitza.

**1.- CONTRATOS DE OBRA**

1. Son contratos de obras aquéllos que tienen por objeto la realización de una obra o la ejecución de alguno de los trabajos enumerados en el Anexo I o la realización por cualquier medio de una obra que responda a las necesidades especificadas por la entidad del sector público contratante. Además de estas prestaciones, el contrato podrá comprender, en su caso, la redacción del correspondiente proyecto.

2. Por *obra* se entenderá el resultado de un conjunto de trabajos de construcción o de ingeniería civil, destinado a cumplir por sí mismo una función económica o técnica, que tenga por objeto un bien inmueble

**2.- ZERBITZU PUBLIKOAK KUDEATZEKO KONTRATUA**

1. El contrato de gestión de servicios públicos es aquél en cuya virtud una Administración Pública encomienda a una persona, natural o jurídica, la gestión de un servicio cuya prestación ha sido asumida como propia de su competencia por la Administración encomendante.

2. Las disposiciones de esta Ley referidas a este contrato no serán aplicables a los supuestos en que la gestión del servicio público se efectúe mediante la creación de entidades de derecho público destinadas a este fin, ni a aquellos en que la misma se atribuya a una sociedad de derecho privado cuyo capital sea, en su totalidad, de titularidad pública.

**2.- CONTRATO DE GESTION DE SERVICIOS PÚBLICOS**

1. El contrato de gestión de servicios públicos es aquél en cuya virtud una Administración Pública encomienda a una persona, natural o jurídica, la gestión de un servicio cuya prestación ha sido asumida como propia de su competencia por la Administración encomendante.

2. Las disposiciones de esta Ley referidas a este contrato no serán aplicables a los supuestos en que la gestión del servicio público se efectúe mediante la creación de entidades de derecho público destinadas a este fin, ni a aquellos en que la misma se atribuya a una sociedad de derecho privado cuyo capital sea, en su totalidad, de titularidad pública.

**3.- HORNIDURA-KONTRATUA**

1. Hornidura-kontratuak dira produktu edo ondasun higigarriak finantza-errentamenduan hartzeko, errentan hartzeko (erosteko aukerarekin zein gabe) edo eskuratzeko xedea dutenak.

2. Ez dira hornidura-kontratutzat joko jabetza gorpuzgabeei eta balore negoziagarriei buruzko

**3.- CONTRATO DE SUMINISTRO**

1. Son contratos de suministro los que tienen por objeto la adquisición, el arrendamiento financiero, o el arrendamiento, con o sin opción de compra, de productos o bienes muebles.

2. Sin perjuicio de lo dispuesto en la letra b) del apartado 3 de este artículo respecto de los contratos que tengan

kontratuak, artikulu honetako 3. paragrafoko b) idatz-zatian xedetzat ordenagailu-programak dituzten kontratuei dagokienez xedatutakoari kalterik egin gabe.

3. Nolanahi ere, ondorengo kontratu hauek hornidura-kontratutzat joko dira:

a) Enpresa hainbat ondasun hurrenez hurren eta unitateko prezioka entregatzera behartzen duten kontratuak, ondasun kopuru osoa kontratua egiteko unean zehaztasunez mugatu gabe, ondasunak eskuratu behar dituenaren premien arabera egiteagatik entregak. Hala ere, kontratu horien esleipena III. liburuko II. tituluko II. kapituluan halakoetarako aurreikusitako arauen arabera egingo da, enpresa bakarrarekin egindako esparru-akordioetarako.

b) xedetzat telekomunikazio-ekipamenduak edo -sistemak edo informazioa tratatzeko ekipamendu eta sistemak eta horien dispositibo eta programak eskuratu eta errentan hartzeko kontratuak dituztenak, baita programak erabiltzeko eskubidea lagatzekoak ere, neurrira garatutako ordenagailu-programak eskuratzeko kontratuak izan ezik, horiek zerbitzu-kontratutzat joko dira eta.

c) Fabrikazio-kontratuak, enpresak horien bidez entregatu behar dituen gauzak (edo gauza) entitate kontratatzaileak aldez aurretik ezarritako ezaugarrien arabera egin behar direnean, nahiz eta entitate kontratatzaileak bere gain hartu horretarako behar diren materialak osorik edo hein batean entregatzeko betebeharra.

**4.- ZERBITZU KONTRATUA**

Zerbitzu-kontratuak dira xedetzat egiteko prestazio bat dutenak, jarduera bat gauzatuz gauzatzen dena, edo obraz edo hornidura besteko emaitza lortzera bideratutako egiteko prestazio bat dutenak.
Lege honen aplikazioari dagokionez, zerbitzu-kontratuak II. eranskinean adierazten diren kategorietan banatzen dira.

– Mantentze eta konpontze lanen zerbitzua.
– Lurreko garraio zerbitzuak, furgoi blindatuen zerbitzuak eta mezularitza zerbitzuak barne, posta garraioa izan ezik.
– Aireko garraio zerbitzua: bidaiari eta karga garraioa, posta garraioa izan ezik

por objeto programas de ordenador, no tendrán la consideración de contrato de suministro los contratos relativos a propiedades incorporales o valores negociables.

3. En todo caso, se considerarán contratos de suministro los siguientes:

a) Aquellos en los que el empresario se obligue a entregar una pluralidad de bienes de forma sucesiva y por precio unitario sin que la cuantía total se defina con exactitud al tiempo de celebrar el contrato, por estar subordinadas las entregas a las necesidades del adquirente. No obstante, la adjudicación de estos contratos se efectuará de acuerdo con las normas previstas en el Capítulo II del Título II del Libro III para los acuerdos marco celebrados con un único empresario.

b) Los que tengan por objeto la adquisición y el arrendamiento de equipos y sistemas de telecomunicaciones o para el tratamiento de la información, sus dispositivos y programas, y la cesión del derecho de uso de estos últimos, a excepción de los contratos de adquisición de programas de ordenador desarrollados a medida, que se considerarán contratos de servicios.

c) Los de fabricación, por los que la cosa o cosas que hayan de ser entregadas por el empresario deban ser elaboradas con arreglo a características peculiares fijadas previamente por la entidad contratante, aun cuando ésta se obligue a aportar, total o parcialmente, los materiales precisos

**4.- CONTRATO DE SERVICIOS**

Son contratos de servicios aquéllos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o un suministro. A efectos de aplicación de esta Ley, los contratos de servicios se dividen en las categorías :

– Servicios de mantenimiento y reparación.
– Servicios de transporte por vía terrestre, incluidos los servicios de furgones blindados y servicios de mensajería, excepto el transporte de correo.
– Servicios de transporte aéreo: Transporte de pasajeros y carga, excepto el transporte de correo
– Transporte de correo por vía terrestre y por vía aérea

- Lurreko eta aireko posta garraioa
- Telekomunikazio zerbitzuak
- Finantza zerbitzuak: a) aseguru zerbitzuak b) banku eta inbertsio zerbitzuak
- Informatika zerbitzuak eta lotutako zerbitzuak.
- Ikerketa eta garapen zerbitzuak
- Kontabilitate, auditoretza eta liburu edukitzailetza zerbitzuak
- Jendearen iritziari buruzko azterlan eta inkestetarako ikerketa zerbitzuak.
- Zuzendaritzako aholkularien zerbitzuak eta lotutako zerbitzuak.
- Arkitektura zerbitzuak; ingeniaritza zerbitzuak eta ingeniaritzako zerbitzu integratuak; hiri plangintzako zerbitzuak eta paisaia arkitekturako zerbitzua. Zientzia eta teknologiako aholkularien lotutako zerbitzuak. Saiakuntza eta analisi teknikoen zerbitzuak.
- Publizitate zerbitzuak
- Eraikinak garbitzeko zerbitzuak eta onibarrak kudeatzeko zerbitzuak.
- Tarifa edo kontratuaren araberako argitaratze eta inprimatze zerbitzuak.
- Estolderia mantendu eta hondakinak desagerrarazteko zerbitzuak: Saneamendu zerbitzuak eta antzeko zerbitzuak.
- Ostalaritzako eta jatetxeetako zerbitzuak
- Trenbideko garraio zerbitzua.
- Ibaiko eta itsasoko garraio zerbitzuak.
- Garraio zerbitzu gehigarri eta osagarriak.
- Zerbitzu juridikoak.
- Enplegu eta langile zerbitzuak.
- Ikerketa eta segurtasun zerbitzuak, furgoi blindatuen zerbitzuak izan ezik
- Hezkuntzako eta lanbide heziketako zerbitzuak
- Gizarte eta osasun zerbitzuak.
- Aisia, kultura eta kirol zerbitzuak.
- Beste zerbitzu batzuk

**ESLEITZEKO MODUAK**

**1.- ENKANTEA:**
Enkantea dirutan adierazitako kopuru batetik abiatuko da eta kopuru hori gainditu gabe preziorik baxuena eskaintzen duen lehiatzaileari esleituko zaio.

- Servicios de telecomunicación
- Servicios financieros: a) Servicios de seguros. b) Servicios bancarios y de inversión
- Servicios de informática y servicios conexos.
- Servicios de investigación y desarrollo
- Servicios de contabilidad, auditoría y teneduría de libros
- Servicios de investigación de estudios y encuestas de la opinión pública.
- Servicios de consultores de dirección y servicios conexos.
- Servicios de arquitectura; servicios de ingeniería y servicios integrados de ingeniería; servicios de planificación urbana y servicios de arquitectura paisajista. Servicios conexos de consultores en ciencia y tecnología. Servicios de ensayos y análisis técnicos.
- Servicios de publicidad
- Servicios de limpieza de edificios y servicios de administración de bienes raíces
- Servicios editoriales y de imprenta, por tarifa o por contrato.
- Servicios de alcantarillado y eliminación de desperdicios: Servicios de saneamiento y servicios similares.
- Servicios de hostelería y restaurante
- Servicios de transporte por ferrocarril.
- Servicios de transporte fluvial y marítimo.
- Servicios de transporte complementarios y auxiliares
- Servicios jurídicos.
- Servicios de colocación y suministro de personal.
- Servicios de investigación y seguridad, excepto los servicios de furgones blindados
- Servicios de educación y formación profesional
- Servicios sociales y de salud.
- Servicios de esparcimiento, culturales y deportivos
- Otros servicios

**FORMAS DE ADJUDICACIÓN**

**1.- SUBASTA:**
La subasta versará sobre un tipo expresado en dinero, con adjudicación al licitador que, sin exceder de aquel, oferte el precio más bajo.

**2.- LEHIAKETA**:
Lehiaketan, oro har eskaintzarik hoberena egiten duen lehiatzaileari emango zaio esleipena, pleguetan ezarritako irizpideak kontuan hartuz, horren prezioari soil-soilik begiratu gabe, eta Administrazioak lehiaketa esleitu gabe uzteko eskubidea izango du.

**3.- NEGOZIATUA**
Administrazioak bidezko arrazoietan oinarrituz aukeratutako enpresariari esleituko zaio kontratua, kontratuaren baldintzak enpresari batekin edo gehiagorekin kontsultatu eta negoziatu ondoren.

**2.- CONCURSO**
En el concurso la adjudicación recaerá en el licitador, que, en su conjunto, haga la proposición más ventajosa, teniendo en cuenta los criterios que se hayan establecido en los pliegos, sin atender exclusivamente al precio de la misma y sin perjuicio del derecho de la Administración a declararlo desierto.

**3.- NEGOCIADO**
El contrato será adjudicado al empresario justificadamente elegido por la Administración, previa consulta y negociación en los términos del contrato con uno o varios empresarios.